

Os(ot)asuna

Saioa Iraola

Osasunaren definizio zehatzaren bila jo dut ordenagailura. Google bilatzailean “osasuna” jarri eta Wikipediako sarreran egin dut klik: «Munduko Osasun Erakundeak horrela definitu zuen 1946an: ‘Osasuna ongizate fisiko, mental eta sozialaren egoera erabatekoa da eta ez bakarrik gaixotasun eza’». Osasuntsu egotearen esangura askotan gaixotasun ezari lotzen diogulako, eta osasuna hori baino gehiago delako.

Egun, aldiz, biomedikuntzak dauka hegemonia osoa gorputza definitzeko eta osasuntsu edo gaixorik egotea zer den zehazteko. Biomedikuntza gure jendarteko sistema mediko nagusia da. Azken mende-

etan zientzia eta teknologia medikoak ahalegin berezia egin du herritarren gorputza eta osasuna ezaugarritzeko eta bereizteko. Horrela, modernitatearekin batera, botere sistema eta dominazio era bat eraiki da. Michel Foucaultek argiki definitu zuen moduan: bioboterea. Horren arabera, boterea jada ez dute gobernuek eta monarkek gauzatzen. Zientzia anitzetan garatzen doazen adituen diskurtsoen bidez gauzatzen da. Aditua eta aldi berean produktiboa den botere bat, gorputzak menperatu eta biztanleria kontrolatzeko jarrera arauak ezartzen dituena.

Horrek osasunaren ikuspegi osoa, holistikoa, alde batera uztea eragin du eta

ikuspegi horrek desgaitu egin gaitu osasunari dagokion arduran. Gaur egungo jendarte egituraren gaixotasunen prebentziora edota tratamenduetara mugatzen den osasun sistema hegemonikoaren aldeko apustua egiten da. Eta gure gorputzak, gure lehen lurralde direnez, ezagutzeko, zaintzeko, autogestionatzeko bidea jorratu dezagun bultzatuko nioke balantzari beste aldera.

Jaten duguna garen moduan, arnasten duguna ere bagarelako. Errautsak, pilulak, zaborrak, keak... irentsi ez gaitzaten, ni ere os(ot)asunaren aldeko martxan izango naiz maiatzaren 29an. Udaberriak ere etorkizunean loratzen jarrai dezan. •

Errenta aitorpena

Joxean Agirre

Errenta aitorpena egiten dudana ba-koitzean ohartzen naiz nire egoera ekonomikoa zeinen urria den. Urtean zehar, tira!, hilaren bukaerara iristen garen bitartean ez diot gaiari buelta gehiegirik ematen eta normalean ostrukarena eginez bizi naiz. Errenta aitorpena egiteko eguna iristean, ordea, paper ziztrin batean laburbildurik agertzen da egoera bere gordintasun osoan. Orduan, etsipenari biderik ez emateko edo, hasperen bat egin eta zenbat jendek maite nauen kalkulatzeko hasi ohi naiz. Anai-arrebak ditut eta beti hartzen naute abegi onez; seme-alabak ere badituzte eta ez didate disgusturik ematen eta poz handiak bai tarteka eta nirekin gogortzen diren emakume batzuk ere badirela errepikatzen diot neure buruari. Emakume batzuk? Nondik atera ote dut datu hori?

Urtean behin errenta aitorpena egiten den bezalaxe, beste egun bat beharko genu-

ke maitasun aitorpena egiteko. Aholkularitza bulego batera joan eta ordenagailuan simulatuko ziguketen arlo horretan urtean zehar egin ditugun inbertsioak eta lortu ditugun emaitzak, maitasuna inbertsio dela oso zuzena ez bada ere. Maitasun platonikoek ez lukete bat ere deduzituko, are gehiago, zigortuta egon beharko lukete; maitasun erromantikoek bai eta sexuak askoz gehiago eta hau taldean praktikatzeko duenari hobariak, dominak eta sariak eman beharko lizkiokete. Adiskidetasuna ere deklaratu beharko da, baina kontuz!, gaupasak eta parrandak ezingo ziren kontutan hartu. Badakit aitorpen konplexua izango zela, baina edozein modutan ere, tekla bati jo eta paper ziztrin batean ikusiko genuke urteko gure egoera gutxi gorabeherakoaren berri.

Maitasuna, zoriona eta dirua ezin direla nahastu esan ohi da, baina nago batzuetan

zalantzak ez ote diren sortzen. Lagun batek askotan esan ohi zuen diruak ez duela zorionik ematen, baina eragiten duen sentimendua hain dela antzekoa non nahasi egiten diren.

Errenta aitorpenean aurten ere ordaintzea atera zaidan bezalaxe (mila bider esplikatutako diruaren ez ditut arrazoiak zehatz-mehatz ulertu), beldur naiz maitasun aitorpenean ere ez ote zaidan ordaintzea tokatuko, eta, ondo pentsatzen jarrita, ez zait bidekoa iruditzen, konpentsazio arau bat aplikatu beharko baitzen.

Badakit Aldundiak ez duela nire egoera emozionalaren errurik, baina arlo honetan urri samar ibiltzeak kenkari, kenkizun edo dena delakoa (zein zaila da ogasunaren mintzaira) izan beharko luke errentarenean edo alderantziz, horrela justizia ikuspegi zabala eta gizatiarrago baten arabera bizi gaituzten. •